

MAKILANDIAKO TXOTXONGILOAK

JAUN KRISTOBAL ETA ANDRE ROSITAREN TRAGIKOMEDIA

TXOTXONGILO FARTSA, SEI KOADRO ETA OHAR BATEAN EMANA

Egilea: Federico García Lorca

Itzultzailea: Jokin de Pedro

Itzulpenari buruzko zenbait datu

Federico García Lorca-ren obra baten itzulpena da berau, 1994.ean Getxoko Aixerrrotako institutuan antzezteko egina. Beren-beregi egindako txotxongilo batzuk erabiliz antzeztu zieten institutuko ikasle batzuek inguruko eskoletako umeei. Jatorrizko obraren izena, berriz, hauxe da: **Los Títeres de Cachiporra: Tragicomedia de Don Cristóbal y la Señá Rosita (Farsa guiñolesca en seis cuadros y una advertencia)**. Jatorrizko testuan agertzen diren zenbait kanta (gehienak) edo itzuli edo Euskal Herriko herri kanta batzuekin ordezkatu dira (hala nola "Ni naiz kapitan pilotu"); inoiz erdarazko orijinala utzi izan da (**Con el vito, vito...**), Andaluziako kutsuari zelanbait eustearren.

PERTSONAIAK

(Eskenan agertu ahala)

ELTXOA

ROSITA

AITA

KOKOLITXE

KOTXEZAINA

JAUN KRISTOBITA

MORROIA

ORDUA

MUTIL GAZTEAK

KONTRABANDISTAK

ESPANTANUBLOS tabernaria

CURRITO Puertokoa

KANTSAGARRI zapataria

FIGARO bizargina

ZITAL BAT

HORIZ JANTZITAKO NESKATXA

ESKALE ITSUA

NESKATILAK

AKOLITOA

GONBIDATU ZUZINAK

EHORZKETAKO ABADEAK

SEGIZIOA

OHARRA

Klarin bi eta danbor bat joko dira. Nonbaitetik ELTXOA irtengo da. ELTXOA pertsonaia misteriotsua da, aldez mamua, aldez intsektua. Askatasunez bizitzearen poza mamitzen du, eta bai Herri andaluzaren gatza eta poesia ere. Ferietako turutatxo bat duela agertzen da.

ELTXOA

Gizonak eta emakumeak! Adi! Mutiko, itxi ezazu ahotxo hori, eta zu, neskato, jesar zaitez agudo! Zaudete isilik, ez barbarik egin... isiltasunik gardenena giroaren jabe egin dadin. Zaudete isilik, azken berriketen barbaroa, abaildu eta abaildu, deuseztu dadin. (*Danbor-hotsa.*) Ni eta neure konpainia burgesen teatrotik gatoz, konteen eta markesen teatrotik, bai, urrez eta kristalez eginiko teatro batetik, gizonak lotara eta andreak... andreak ere lotara joaten diren teatrotik. Ni eta neure konpainia entzerraturik geunden. Ezin imajina dezakezue zerenbesteko pena geneukan. Baina, halako egun batean, atearen irrikitutik izar bat ikusi nuen, dizdizka zegoen izar bat. Begia ahal beste zabaldu nuen —haizearen atzamarrak itxi egin nahi zidan!—, eta izarraren pean ibai zabal-zabal bat zetzan irribarrez, txalopa geldoek ildokaturik. Orduan nik neure lagunak abisatu nituen, eta ihesi joan ginen zelai horietatik zehar jende xehearen bila, munduko gauzak, gauzatxoak eta gauzatxo txikiak erakusteko; mendietako ilargi berdearen pean, hondartzetako ilargi arrosaren pean. Orain, ilargia irteten den garaian eta ipurtargiak astiro-astiro euren kobatxoetara ihesi doazenean... hastera doa funtzio haundi hau: «Jaun Kristobal eta Andre Rositaren tragikomedia»... Prest egon zaitezte, bai, Jaun Kristobal petralaren jenioa jasateko eta bai Rositaren epelkeriengatik negar egiteko; zeren emakume hau emakumea barik zera da: hegabera uraren gainean ibiltari, elurretako txoriño hauskorra. Has gaitezen! (*Mutisa egin ostein, korrika itzultzen da.*) Eta orain... Haizea! : abanikatu harridurazko aurpegi horiek guztiak; eraman itzazu hasperenak hango mendietatik gora eta xukatu mutilagunik gabeko neskatilen begietako malkoak.

Lau orri bazituen

Musika nire arbolatxoak

haizeak eraginda

urrun eramanak. («Triste bizi naiz eta...»ren doinuz.)

Aldaketa

LEHEN KOADROA

Andre Rositaren etxeko sala. Atze-atzean, burdin-hesia eta atea. Burdin-hesian zehar laranjondo-baso txiki bat ageri da. ROSITA arrosaz jantzita dago; polisoidun soinekoa du, xingolaz (bandaz) eta farfailez betea. Teloia igotean, bastidore handi baten aurrean jazarrita dago, bordatzen.

ROSITA (*Puntadak kontatuz.*)

Bat, bi, hiru, lau... (*Ziztadaz min hartuta.*) Ai! (*Atzamarra ahora daroala.*) Lau bider ziztatu naiz jadanik «Neure aita maiteari» honen azken *i*-an. Kainamazoa lanbide zaila da, benetan. Bat, bi... (*Jostorratza soltatzen du.*) Ai, hau ezkontzeko gogoa! Ile mototsaren gainean lore hori bat jarriko dut eta kale guztia estaliko duen errezela eramango dut herrestan. (*Jaikitzen da.*) Eta bizarginaren alaba bere leihotik azaltzen denean, esango diot: «Ezkundu behar dut, baina zuk baino lehenago, askoz ere lehenago, eskumuturrekoak eta guzti soinean ditudala. (*Kanpoan txistu-hotsa.*) Ai, ai, neure mutila! (*Korrika, burdin-hesira abiatzen da.*)

AITA (*Kanpoan.*)

Rositaaaaaa!

ROSITA (*Ikaraturik.*)

Zeeeeeer!

(*Txistu-hots are ozenagoa. Arineketari eman, bastidorearen aurrean jazarri eta burdin-hesiari begira musuak jaurtitzen ditu.*)

AITA (*Sartzen delarik.*)

Bordatzen ote zenbiltzan jakin gura nuen... Bordatu, ene alabatxoa, bordatu, horretatik jaten dugu eta! Ai, dirua dela eta ez dela zelako estutasunak gureak! Zure osaba Artzipresteak herentzian utzi zizkigun ondasunetatik ez zaigu apurrik ere gelditzen.

ROSITA

Ai, hura bizarra osaba Artziprestearena! Ederra zen, gero!
(*Txistu-hotsa kanpotik.*) Eta ederto egiten zuen txistu!
Hain ederto!

AITA

Baina, alaba, zer diozu? Zoratu al zara?

ROSITA (*Urduri.*)

Ez, ez... Zera... erratu egin naiz.

AITA

Ai, Rosita, hauek estutasunak! Lur jota gaude! Gureak
egingo du! (*Zapia atera eta negarrari ematen dio.*)

ROSITA (*Negarrez.*)

Ba..., bai..., zuk..., nik...

AITA

Ezkondu nahi bazenu, behintzat, beste kuku batek joko
liguke soinua; baina irudipena daukat oraindik...

ROSITA

Ni desiratzen nago, baina.

AITA

Bai?

ROSITA

Baina, ez al zara konturatu? Gizonok ez zarete batere
zorrotzak!

AITA

Ba, ezin hobeto datorkit, ezin hobeto!

ROSITA

Ni... ilea handikiro orraztu eta aurpegian kolorea
ematearren...

AITA

Beraz, ados zaude?

ROSITA (*Moja baten planta irrigarria eginez.*)

Bai, aita.

AITA

Ez zaizu damutuko, gero!

ROSITA

Ez, aita.

AITA

Eta nire esanak beteko dituzu beti?

ROSITA

Bai, aita.

AITA

Ba, horixe jakin nahi nuen. (*Mutisa eginez.*) Salbatu naiz kiebratik. Salbatu naiz! (*Badoa.*)

ROSITA

Zer esan nahi ote du «Salbatu naiz kiebratik. Salbatu naiz» horrek? Ze, Kokolixte nire mutilagunak guk baino diru gutxiago dauka. Askoz ere gutxiago! Amagandik hiru hogerleko eta irasagar kaxa bat heredatu zituen eta... besterik ezer ere ez! Ai! Baina maite dut, maite dut, ezer baino gehiago maite dut! (*Hau guzti hau azkar-azkar esanaz.*) Dirutxoak, munduko jendeentzat; niretzat, maitasuna. (*Arineketan doa eta burdin-hesian zehar zapi arrosa luze bat astintzen du.*)

KOKOLITXEREN AHOTSA (*Abestuz, gitarraz lagunduta.*)

Airez aire dabilzan
orbel iheskorrak
dira zure hasperen
gazi ta gozoak.

ROSITA (*Abestuz.*)

Airez aire dabiltzan
orbel iheskorrak
dira zure hasperen
azi ta gozoak. («*Triste bizi naiz
eta...»*)

KOKOLITXE (*Burdin-hesira azalduz.*)

Nor da?

ROSITA (*Abaniko batez aurpegia estalita eta ahotsa eraldatuz.*)

Jende ona, bakez datorrena.

KOKOLITXE

Menturaz, Rosita deritzona bizi da etxe honetan?

ROSITA

Bainuak hartzen dihardu.

KOKOLITXE (*Aldegiteko keinua eginez.*)

On egin diezaiotela.

ROSITA (*Aurpegia agertuz.*)

Aldegin behar ote zenuen?

KOKOLITXE

Ezin izango nuen. (*Lausengari.*) Zure ondoan nagoela,
hankek berunezkoak dirudite.

ROSITA

Ba al dakizu gauza bat?

KOKOLITXE

Zein?

ROSITA

Ai, ezin, ez naiz ausartzen!

KOKOLITXE

Ausar zaitez!

ROSITA (*Serio-serio.*)

Hara, ez dut emakume lotsagaldua izan nahi.

KOKOLITXE

Baita nik ondo iritzi ere.

ROSITA

Hara, kontua zera da...

KOKOLITXE

Amaitu behingoz!

ROSITA

Abanikoan ostenduko naiz.

KOKOLITXE (*Berantetsirik.*)

Baina, emakumea...!

ROSITA (*Aurpegia estalirik.*)

Zurekin ezkondu behar dudala.

KOKOLITXE

Zer diozu, baina?

ROSITA

Entzuten duzuna!

KOKOLITXE

Ai, Rosita!

ROSITA

Lehenbailehen...

KOKOLITXE

Lehenbailehen eskutitz bat idatziko dut Parisera haur bat eskatuz...

ROSITA

Aizu, Parisera ezelan ere ez, nik ez dut nahi frantsesen modukoa izatea, beti txau, txau eta txau.

KOKOLITXE

Orduan...

ROSITA

Madrilera eskatuko dugu.

KOKOLITXE

Zure aitak badaki, apika?

ROSITA

Baimena ere eman dit! *(Abanikoa kendu egiten du.)*

KOKOLITXE

Ai ene Rosita! Zatoz! Zatoz! Erdu hona!

ROSITA

Ez zaitez aztoratu, arren.

KOKOLITXE

Oinazpietan kilikiliak ditudala iruditzen zait. Hurbil zaitez.

ROSITA

Ez, ez; urrunetik emango dizkizut patxoak. *(Urrunetik musuka dihardute. Txilin-hotsa.)* Beti berdin! Orain jendea dator. Gauera arte!

(Txilinak entzuten dira; atze-atzeko burdin-hesitik lumazko mototsak dituzten kartoizko zalditxoek tiraturiko karroza batek gurutzatzen du eta gelditu egiten da.)

KRISTOBITA *(Karrozatik.)*

Izan ere, herriko neskatorik politena da.

ROSITA (*Gonarekin gurkera bat eginez.*)

Mila esker.

KRISTOBITA

Erabaki dut: neurea izango da. Metro bat luze izango da, hor nonbait. Emakumeak ez du gehiago ez gutxiago eduki behar. A, baina horiek gerriak, hori jasa! Txolindu nau, ia-ia! Arre, kotxezain!

(*Badoa karroza, astiro-astiro.*)

ROSITA (*Burla eginez.*)

«Erabaki dut: neurea izango da». Hori gizon itsusia eta gizalege gabea! Atzerritik datozen txolin horietakoren bat izango da, noski. (*Burdin-hesitik perlazko lepoko bat jausten da.*) Ene! Zer da hau? Jaungoikoa, hori perlazko lepoko zoragarria! (*Lepokoa jantzi eta esku-ispilutxo batean begiratzten du.*) Genoveva Brabantekoak honelakoxe bat edukiko zuen bere gazteluko dorrean senarraren zain galditzen zenean. Eta agindu eta egina bezalakoxea daukat. Baina, norena ote da?

AITA (*Sartuz.*)

Alabatxo, zorion bete-betekoa! Zure ezkontza berbapetu berri dut!

ROSITA

Zelan eskertzen dizudan, aita. Eta Kokolitzek ere ez dizu, ba, gutxi eskertuko! Oraintxe bertan...

AITA

Zer Kokolitzxe eta zer Kokolitzxe-ondo? Zer esaten ari zara? Nik Kristobita makiladunari eman diot zure eskua, oraintsu bere karrozan hortik pasatu denari, hain zuzen.

ROSITA

Ba, ez dut gura, ez dut gura, hara! Eta nire eskuari dagokionez, ezelan ere ez didazu kenduko. Nik banuen senargaia... Utikan lepokoa! (*Lepokoa jaurtiz.*)

AITA

Ba, ez dago atzera bueltarik. Gizon horrek urretan dauka eta niri komeni zait; osterantzean, bihar-etzi limosna eske ibili beharko genuke.

ROSITA

Ba, ibiliko gara.

AITA

Ni nauzu aita eta neuk agintzen dut hemen... eta kito!

Ez dago honetaz gehiago hitz eginik.

ROSITA

Baina nik...

AITA

Isilik!

ROSITA

Ba, niri...

AITA

Ixo! (*Badoa.*)

ROSITA

Ai, ai! Egundo holakorik! Nire eskuaren jabe egiten da, eta nik agoantatu beste irtenbiderik ez daukat, legeak horrela esaten duela eta. (*Negar egiten du.*) Legea ere bere etxean gelditu balitz, hobe! Arima deabruari saldu ahal banio, behintzat...! (*Oihuz.*) Deabrua, deabrua, irten! Nik ez dut Kristobalekin ezkondu nahi eta.

AITA (*Sartuz.*)

Ze deiadar dira horiek? Isilik eta ekin bordatzeari! Hauek garaiak, hauek! Seme-alabek gurasoei agindu behar? Zuk denari baietz esango diozu, nik aitari esan nion bezalaxe zure amarekin ezkondu ninduenean, bai, zure ama... ilargiaren pareko aurpegia zuena, portzierto...

ROSITA

Ondo da. Isilduko naiz!

AITA (*Mutisa eginez.*)

Egundo holakorik!

ROSITA

Ondo da. Batetik abadea, bestetik aita; ondo izorratuta gaude neskatilak. (*Jezarri eta bordatzeari ekiten dio.*) Arratsaldero —hiru, lau— parrokuak esaten digu «Infernura joan behar duzue, gero! Jo eta kiskalita hilgo zarete! Txakurrak baino txarrago...!» Nik, berriz, pentsatzen dut txakurrak nahi dutenarekin ezkontzen direla eta ederto pasatzen dute, gainera! Biziki gustatuko litzaidake txakurra izatea! Ezen, aitari men egiten badiot —lau, bost—, infernu batean sartuko naiz eta, aldiz, men egiten ez badiot, gero beste infernura joango naiz, goiko horretara... Izan ere, apaizak hainbeste berba egin beharrean, isilik baleude, hobe, ze... (*Malkoak xukatzen ditu.*) Ni Kokolixerekin ezkontzen ez banaiz, errua abadeak izango du, bai, abade jaunak... eta beroni, azken batean, hau guztia ez zaio batere axola. Ai ene, ai ene, ai ene!

KRISTOBITA (*Bere MORROIArekin, leihoan.*)

Gauza fina da. Atsegin duzu?

MORROIA (*Dardaraz.*)

Bai, jauna.

KRISTOBITA

Ahoa pitin bat handiegia, baina gorputza.... gain-gainekoa. Tratua oraindik itxi gabe daukat... Atsegin izango litzaidake berarekin mintzatzea, baina ez nuke nahi konfiantza gehiegi har dezan... Konfiantza larregiak galbidea ekar dezake. Ez ukatu!

MORROIA (*Dardaraz.*)

Baina, jauna!

KRISTOBITA

Gizonekin jokabide biri baino ezin jarraitu: edo ez ezagutu edo garbitu!

MORROIA

Ene Jaungoikoa!

KRISTOBITA

Gustatzen zaizu, ezta?

MORROIA

Berorri are gehiago, jauna.

KRISTOBITA

Aaa, pottoka gustagarria da. Eta neuretzat bakarrik!
Neuretzat bakar-bakarrik! (*Badoa.*)

ROSITA

Hauxe besterik ez genuen behar. Hau etsipena! Ni oraintxe bertan pozoinduko naiz, poxpoluekin edo barruak erreko dizkidan edabe bat hartuta.

(Horma-erlojua ireki egiten da. Barrutik irtenda ORDU bat azaltzen da, horiz jantzita polisoiarekin.)

ORDUA (*Kanpai-hotsez eta ahoz esanez.*)

Dalan! Rosita: pazientzia izan. Zer egin behar duzu? Gauzek zer bide hartuko duten nork jakin? Hemen eguzkia, han euria. Ba ote dakizu bihar nongo haizeak joko duen zure teilatutxo horretako haize-orratzari dantzarazteko? Nik, egunero etortzen bainaiz, hauxe gogoratuko dizut zahartzen zarenean eta une hau ahazturik daukazunean: utzi urari bere bidetik eta izarrari argi egiten. Rosita, pazientzia izan! Dalan! Ordu batak.
(Itxi egiten da.)

ROSITA

Ordu batak... Gose apurrik ere ez daukat, ordea!

AHOTSA (*Kanpoan.*)

Airez aire dabiltzan
orbel iheskorrak...

ROSITA

Somatzen ditut sartzen... zure hasperen gazi eta gozoak.

(Horma-erlojua berriz ere ireki egiten da; ORDUA azaltzen da, lotan. Kanpaiak soilik jotzen du.)

ROSITA *(Negarrez.)*

...zure hasperen gazi eta gozoak...

Oihala.

BIGARREN KOADROA

Antzezleku txikiak herri andaluz bateko plaza agertzen du. Eskuinaldean, Andre Rositaren etxea. Ager bitez palmondo handi-handia eta banku bat. Ezkerraldean KOKOLITXE azaltzen da, errondan, zinta beltzdun kapa berde ilunean bilduta, gitarra eskuetan. XIX. mende hasierako herri-jantziak ditu soinean; buruan, calañastar (*calañés*) tankerako kapela daroa txairotasunez. KOKOLITXE

Rosita ez da irteten. Ilargiaren beldur da. Ilargia ikaragarria da isilpeko maitalearentzat. *(Txistu egiten du.)* Hara, txistu-hotsak, musikazko harritxoak bailitzan, haren balkoiko kristala jo du. Atzo zinta beltza jarri zuen ilean. Honela esan zidan: «Zinta beltza nire ilearen gainean goibeltasunaren adierazgarri da; horrela ikusten banauzu, tristetu zaitez zeu ere. » Zer edo zer gertatzen zaio.

(Argi ahul eta eztiak argi egiten dio lorapotez beteriko balkoi txikiari.)

ROSITA *(Barruan.)*

Con el vito, vito, vito,
con el vito que me muero.

KOKOLITXE *(Hurbilduz.)*

Zergatik ez zinen irteten?

ROSITA *(Balkoian, modu oso kursu eta oso poetikoan arituz.)*

Ai, ene haurtxoa! Moru-haizeak orain Andaluziako haize-orratz guztiak jirarazten ditu. Ehun urte barru ere jiratuko dira.

KOKOLITXE

Zer esan nahi duzu?

ROSITA

Denboraren ezkeraldera eta eskuinaldera begira dezazula, eta zure bihotzak lasai egoten ikas dezala.

KOKOLITXE

Ez dizut ulertzen.

ROSITA

Esan behar dizudanak ezten zorrotza du. Horregatik prestatu zaitut aurretiaz. (*Geldialdia; ROSITAk negarrari ematen dio era barregarritz, ito beharrean.*) Ez daukat zurekin ezkontzerik!

KOKOLITXE

Rosita!!!

ROSITA

Zu zara nire begietako izarra! Baina ezin naiz zurekin ezkondu! (*Negarrari ematen dio.*)

KOKOLITXE

Mojatarako asmorik edo? Ezer txarrik egin ote dizut nik? Ai, ai, ai! (*Negar egiten du era barregarritz, ume baten moduan.*)

ROSITA

Jakingo duzu. Orain, agur.

KOKOLITXE (*Oihu eginez eta beheari ostikoka.*)

Ez, ez, ez, ez!

ROSITA

Agur, aita deika dut.

(*Balkoia itxi egiten da.*)

KOLITXE (*Bakarka.*)

Mendigoienean banengo bezalako durundia somatzen dut belarrietan. Ni paperezkoa izan eta neure bihotzeko sugarretan erre izan banintz legez nago. Baina ezin liteke, ez, ez eta ez. (*Beheari ostikoka.*) Ez duela nirekin ezkondu nahi? Ile-tximak gordetzeko kutxatila ekarri nionean, eskua aurpegitik pasatu zidan. Loredun zapia opari egin nionean, halako eraz begiratu zidan..., eta Pedro Romero bere kapotea zabaltzen ageri den nakarrezko abanikoa ekarri nionean, berriz, eman zidan musutan... abanikoak barilak zituen beste! Bai, jauna, horrenbeste musu...! Tximistak erdi bi egin banindu, hobe. Ai, ai, ai! (*Negar egiten du konpasari egoki-egoki jarraituz.*)

(Ezkerraldeetik mutil gazte batzuk sartzen dira, herri-jantziak soinean dituztela; euretako batek gitarra dakar eta beste batek panderua. Abesteari ekiten diote.)

Guadalquivir ibaian
bainu hartzen dabil
hango ur sakonetan
jauzi eta murgil
Bihotzez maite dut nik
eta larri nabil
bere kaltea baino
nahiago nuke hil («Agur Euskal Herria/baina ez betiko...» *doinuaz.*)
1. MUTILA

Kokolitxe da.

2. MUTILA

Zer dela eta negarrez? Jaiki zaitez eta ez ardura izan basoan txoria arbolarik arbola ibiliagatik.

KOKOLITXE

Utz nazazue!

3. MUTILA

Ezinezkoa da. Zatoz gurekin, kanpoko haizeak ematen dizunean ahaztuko zaizu pena eta.

1. MUTILA

Goazen, goazen. (*Badaramate. Ahotsak eta musika.*)

(Antzezlekua hutsik gelditzen da. Ilargiak plaza zabalari argi egiten dio. ROSITAren etxeko atea zabaltzen da eta AITA ageri da, grisez jantzita, arrosa koloreko ileordeaz eta aurpegia ere kolore horrekin margotua. JAUN KRISTOBITA berdez jantzita dator, sabel ikaragarri handiaz eta lepoa zerbait konkortua. Aldean, berriz, lepoko bat, txintxilin-eskumuturrekoa eta makila sendo bat, makulu gisa darabilena.)

KRISTOBITA

Beraz, tratua itxi egingo dugu, ezta?

AITA

Bai, jauna..., baina...

KRISTOBITA

Zer baina eta zer polaina? Tratua itxita dago. Nik zuri zorpetik irteteko behar dituzun ehun hogەرlekoak emango dizkizut eta zuk niri, berriz, zeure alaba Rosita eskuratuko didazu..., eta pozik egon zintezke, bera... heldutxoa da eta.

AITA

Hamasei urte ditu.

KRISTOBITA

Heldutxoa esan dut, eta hala dago.

AITA

Bai..., jauna, hala dago.

KRISTOBITA

Halere, neskatila polita da. Zer arraio! «Un bocatto di cardinali!»

AITA *(Serio-serio.)*

Berorrek badaki italieraz hitz egiten?

KRISTOBITA

Ez; umetan Italian eta Frantzian izan nintzen, Don Pantalon zeritzon batentzat zerbitzen, baina... hara, zuri ez dizu honek guztiak batere ardura!

AITA

Ez..., ez, jauna... Ez dit batere ardura.

KRISTOBITA

Gauzak horrela, bihar arratsalderako bedeinkapen guztiak emanak nahi ditut.

AITA (*Ikaraturik.*)

Hori ezin liteke, Jaun Kristobita.

KRISTOBITA

Nork esan dit ezetz? Hainbat eta hainbat gizon bota dudan trokartera bidaliko ote zaitudan nago. Hona nire makila: gizon asko hil ditu: frantsesak, italiarrak, hungariarrak... etxean badut zerrenda. Obeditu niri! Osterantzean, haiekin guztiekin dantza egitera abia zintezke. Nire makilak aspaldi ez du dantzatu eta eskuetatik ihes egiten dit. Argi ibili!

AITA

Bai... , jauna.

KRISTOBITA

Orain, eutsi dirua. Garesti ere garesti ordaintzen nabil neskatzagatik, alajaina! Baina, tira, eginak egin. Ni ez naiz, emandako hitza janez, atzera egiten duten horietakoa.

AITA

(Jaungoikoa, nori eman diot neure alaba?)

KRISTOBITA

Zer diozu...? Goazen abadeari abisu ematera.

AITA (*Dardaraz.*)

Goazen.

ROSITA (*Barruan.*)
Con el vito, vito, vito,
con el vito que me muero;
cada hora, niño mío,
estoy más metida en fuego.
KRISTOBITA

Zer da hori?

AITA

Nire alabatxoa, kantari... Abesti zoragarria da!

KRISTOBITA

Bo! Neuk irakatsiko diot ahotsa grabeago jartzen,
naturalago! Harako kanta hura abesteko:

Ni naiz kapitan pilotu
ni naiz kapitan pilotu
niri behar zait obeditu, obeditu...

Oihala

HIRUGARREN KOADROA

Herri bateko taberna bat. Atzean, horma zurietan, upelak eta pitxer urdinak. Zezenketa-kartel zahar bat eta hiru kriseilu. Gaua da. Tabernaria salmahaiaren ostean dago. Gizon iletente sudurmotza da; mangutsik dago. ESPANTANUBLOS du izena. Eskuinaldean, KONTRABANDISTA peto-petoz osaturiko talde bat dago; herenilez (terziopeloz) jantzita, bizardunak dira eta trabukoak dituzte; jokoan dihardute, kantari.

1. KONTRABANDISTA

Cadiz hiritik Gibraltarrera
zoragarria bidea
Malagan berriz portu ederra
ta itsasontziz betea
Sevilla dugu ditziratsua
edertasunen atea
Hara non dugun begi aurrean
Andaluzia maitea

2. KONTRABANDISTA

Aizu! Espantanublos! Zorioneko abestiak egarritu egin nau. Ekarzu Malagako ardoa!

ESPANTANUBLOS (*Nagikeriaz.*)

Oraintxe.

(Erdiko atetik kapa urdin zabalean bildutako GAZTE bat ageri da. Sonbreiru zapala du jantzirik. Jakinmina sortu da. Aurrera jarraitzen du eta ezker aldeko mahai batean jezartzen da kapa-sonbreiruak erantzi gabe.)

ESPANTANUBLOS

Berorrek nahi al du zerbait hartu?

GAZTEA

Ai! Ez.

ESPANTANUBLOS

Aspaldi heldu da?

GAZTEA

Ai! Ez!

ESPANTANUBLOS

Hasperenka dabil, antza.

GAZTEA

Ai! Ai!

1. KONTRABANDISTA

Nor da?

ESPANTANUBLOS

Ez dut jakiterik izan.

2. KONTRABANDISTA

Ez ote da izango...?

1. KONTRABANDISTA

Hobe dugu joatea.

2. KONTRABANDISTA

Gaua oskarbi dago oso.

1. KONTRABANDISTA

Izarrak etxeen gainera jausten dira...

2. KONTRABANDISTA

Eguna argitzean itsasoa bistaratuko dugu (*Irteten dira.*)

(GAZTEA bakarrik gelditzen da. Burua doi-doi ageri du. Argi urdin sarkorrak antzezleku osoari argi egiten dio.)

GAZTEA

Herria zuriago somatu dut oraingoan, askoz ere zuriago. Goimendietatik ikusi nuenean, argia begietatik sartu eta oinetaraino heldu zitzaidan. Andaluzok haragia ere karez margotuko dugu, alajaina! Baina barne-dardarizoa daukat. Ene Jaungoikoa! Ez nuen etorri behar.

ESPANTANUBLOS

Don Tancredo bezalaxe dago, egon ere, baina ni...
(Kalean gitarrak eta berbots alaia entzuten dira. Irtenez.)
Zer gertatzen da?

(Gazte taldea sartzen da, KOKOLITXE buru delarik.)

KOKOLITXE *(Mozkorturik.)*

Espantanublos, emaguzu ardoa jo eta begietatik irten arte. Ederrak izango dira gure negar-malkoak: topaziozko, errubizko malkoak... Ai, ene lagunok!

1. MUTILA

Hain gaztetxoa! Guk ezin zuri triste egoten utzi!

DENAK

Ez horixe!

KOKOLITXE

Hark esaten zizkidanak hain ziren gauza samurrak,
eztiak... Hara, esaten zidan: «Heldu gabeko marrubi bi
bezala dituzu ezpainak, eta...»

1. MUTILA (*Aurrekoaren iharduna etenez.*)

Hori emakume hori sano erromantikoa da. Hortaz, ni ez
nintzateke penatuko. Jaun Kristobita agure lodi mozkorti
lozorroa da, luzaro gabe...

DENAK

Hori duk eta!

2. MUTILA

Luzaro gabe... (*Barreak.*)

ESPANTANUBLOS

Mutilak, mutilak.

2. MUTILA

Eta orain, edan dezagun.

1. MUTILA

Zuen osasunean eta nire gizenean. (*Basoarekin topa
eginez.*) Kokolitxe: gaueko hamabietan zabalik edukiko
duzu atea eta beste guztia...

DENAK

Ole! (*Gitarrak jotzen dituzte.*)

2. MUTILA

Nik Andre Rositaren osasunean edango dut.

GAZTEA (*Jaikiz.*)

Andre Rositaren osasunean!

2. MUTILA

Eta bere senargaiak zanpantzar batek bezala eztanda
egin dezan.

GAZTEA (*Hurbilduz, baina aurpegia estalirik.*)

Itxaron, jaunak! Kanpotarra nauzue eta jakin gura nuke nor ote den hain alai eta hain sutsu goersten duzuen Rosita hori.

KOKOLITXE

Kanpotarra izanik, horrenbeste ardura dizu, ba?

GAZTEA

Baliteke.

KOKOLITXE

Espantanublos, itxi ezazu atea; maiatzaren atarian bagara ere, jaun honek hotz handia dauka, antza.

2. MUTILA

Aurpegian batez ere.

GAZTEA

Ni zuei zerbait galdetzera etorri eta, hara, nire galderei entzungor egiten diezue. Broma asko delakoan nago.

KOKOLITXE

Eta zuri asko ardura dizu, ba, nor den emakume hori?

GAZTEA

Zuk uste baino gehiago.

KOKOLITXE

Ba, hara: hori emakume hori Andre Rosita da, plazakoa, Andaluziako *cantaora*-rik handiena, nire... bai! Nire emaztegaia!

2. MUTILA (*Aurrera eginez.*)

Orain Jaun Kristobitarekin ezkonduko dena, eta hau, ba, atera kontuak!

DENAK

Ole! Ole! (*Barreak.*)

GAZTEA (*Triste-triste.*)

Barka ezazue. Solasaldian arreta jarri dut, behin neuk ere Rosita zeritzon neskalaguna izan nuelako...

2. MUTILA

Jadanik ez da zure neska?

GAZTEA

Ez. Orain emakumeek txepelak dituzte gogoko. Gabon.
(*Mutisa egiten hasi.*)

2. MUTILA

Jauna, joan baino lehen gurekin baso bat ardo har dezazun nahi nuke. (*Eskuratzen dio.*)

GAZTEA (*Atean, urduri.*)

Mila esker, baina ez dut edaten. Gabon, jaunak. (*Bere artean eta irtetera doala.*) Ez dakit zelan kontrolatu naizen, ez dakit...

ESPANTANUBLOS

Baina nor arraio da gizon hori eta zertan etorri ote da hona?

2. MUTILA

Horixe berori diotsut nik zuri. Nor da hori, nor dago mozorro horren ostean gordeta?

1. MUTILA

Tabernari kaxkarra zara.

KOKOLITXE

Arduratuta nago, arduratuta... Gizon hori!

(*Artega daude denak; ahots apalez mintzo dira.*)

2. MUTILA (*Atetik.*)

Jaunak: Jaun Kristobita dator tabernarantz.

KOKOLITXE

Hari musturrak hausteko abagadune ona.

ESPANTANUBLOS

Nire etxean ez dut istilurik nahi. Beraz, ospa hemendik lehenbailehen.

1. MUTILA

Tira, tira, Kokolitze; ez zaitetz liskarretan sartu.

(Mutil bik badaramate KOKOLITXE eta beste biak upelen ostean ezkututzen dira. Eskena isilik geratzen da.)

KRISTOBITA *(Atean.)*

Brrrrrrruuuuum!

ESPANTANUBLOS *(Ikaraturik.)*

Gabon.

KRISTOBITA

Ardo ugari edukiko duzu, ezta?

ESPANTANUBLOS

Berorrek nahi adinakoa.

KRISTOBITA

Ba, guztiak nahi ditut, guztiak!

1. MUTILA *(Bazter batetik.)*

Kristobita! *(Ahots xirulariz.)*

KRISTOBITA

E? Nork hitzegin du?

ESPANTANUBLOS

Horko ortuetako txakurtxoren bat izango da.

KRISTOBITA (*Makilari heldu eta abestuz.*)

Azeria: buztana ostendu!

Baietz makilaz errotik kendu!

ESPANTANUBLOS (*Aztoraturik.*)

Badaukat ardo gozoa, ardo zuria..., ardo... mikatza, ardo-
ardoa...

KRISTOBITA

Eta prezio onean, gero! Lapur hutsak zarete denok! Esazu
zeuk: lapur hutsak.

ESPANTANUBLOS (*Dardaraz.*)

Lapur hutsak.

KRISTOBITA

Bihar Rositarekin ezkondu behar dut eta ardo asko egotea
gura dut... neuk edateko.

1. MUTILA (*Bere upeletik.*)

Kristobita, edandakoan jausita!

2. MUTILA (*Beste upel batetik.*)

Edandakoan jausita!

KRISTOBITA

Brrrrrrr, brr, brr, brr! Zure upelek hitzegiten al dute ala
adarra jotzen zabilta?

ESPANTANUBLOS

Ni? Ni...?

KRISTOBITA

Usain egiozu makilari! Zeren usaina dauka?

ESPANTANUBLOS

Ba... ze-zera...

KRISTOBITA

Esan ezazu!

ESPANTANUBLOS

Garunak!

KRISTOBITA

Zer uste zenuen ba? Eta «edandakoan jausita» kontu hori dela eta, ikusi egin beharko zein den edandakoan jausiko dena, zu ala ni. (*Haserre bizian.*)

ESPANTANUBLOS

Baina Jaun Kristobal, Jaun Kristobal...

2. MUTILA (*Upel batetik.*)

Jaun Kristobal
tripa zabal!

1. MUTILA

Tripa zabal!

KRISTOBITA (*Makilarekin.*)

Heldu zaizu ordua, zital hori! Barrabana halakoa!

ESPANTANUBLOS

Ai, Jaun Kristobita, erruki bedi!

2. MUTILA

Tripa zabal!

KRISTOBITA

Egundo holakorik! Horrelako koplak niri! Eutsi tripa zabal, eutsi, eutsi!

(Biak irteten dira. KRISTOBITAK makilaz jotzen du ESPANTANUBLOS, eta honek arratoi baten moduan garrasi egiten du. MUTILEK barre zantzoka dihardute upeletatik. Musika.)

Oihala

LAUGARREN KOADROA

Ager bedi lehengo plaza, baina ilargiak motelago argi egiten diola. Palmondo horia nabarmendu egiten da zero urdin izar gabeen. Ezkeraldetik, MUTILAK sartzen dira, sano edanda, KOKOLITXE guztiz mozkorturik dakartela.

1. MUTILA

Ipurterrea da gero, zorioneko Kristobita hori.

2. MUTILA

Eta makilazotan eman dio tabernari gizajoari, makilazotan...

1. MUTILA

Aizu, honekin zer egingo?

2. MUTILA

Berton utziko dugu; lasai, itzartuko da, bai, gaueko ihintza somatzen duenean. *(Badoaz.)*

(Azkar hurbiltzen ari den xirula-hotsa entzuten da; ELTXOA ageri da. Argia hazi egiten da. KOKOLITXE lotan ikusita, beronengana hurbiltzen da eta turutatxoa belarrira jotzen dio. KOKOLITXEK esku-zartaz jo eta uxatu egiten du ELTXOA.)

ELTXOA

Berak ez daki gertatzen ari denaren berri; jakina, umetxoa da oraindik ere... Baina, dena dela, kontua da Rositaren bihotz txiki samurrak ihes egiten diola. *(Barre egiten du.)* Andre Rositaren arima ferietan salgai egoten diren barku txiki horiek bezalakoa da. Orain honek belaren gainean «OROITZAPENA» hitza idatziko du eta abian joango da, aurrera eta aurrera... *(Turutatxoa jotzen duen bitartean badoa; eskena ostera ere ilunduta gelditzen da.)*

(GAZTEA, kapan gordeta, eta herriko MUTIL bat sartzen dira.)

GAZTEA

Orain pozten nau etorri izanak, baina halako amorrua daukat... hitzak ere ez zaizkit ateratzen! Ezkontzera doala diozu?

MUTILA

Bihar bertan, Kristobita deritzon aberats lozorro,
astakirten, bere itzala ere txirtxilatzen duen horrekin...
Baina Rositak ahaztu zaituelakoan nago.

GAZTEA

Ezin liteke; hain maite ninduen orain dela...

MUTILA

Bost urte.

GAZTEA

Zuzen zaude.

MUTILA

Zergatik utzi zenuen?

GAZTEA

Ez dakit. Hemen gehiegi nekatzen nintzen. Orain portura
joan, gero portutik etorri... Bazeneki! Nik mundu honetan
edonon aditzen nuen kanpai-hotsa, edozein bide-ertzetan
ikusten nituen baserri aratz ederrak, atorrak
ukondoetaraino tolestutako neskatxa ilehoriekin. Ez dago
horrelakorik bat ere! Gogaikarria da oso!

MUTILA

Zer egiteko asmoa duzu?

GAZTEA

Bera ikusi nahi dut.

MUTILA

Hori ezinezkoa da. Ez duzu Jaun Kristobita ezagutzen.

GAZTEA

Ba, ikusi nahi dut, kosta ahala kosta.

(Eskuinaldetik KANTSAGARRI sartzen da.)

MUTILA

A! Honek balioko digu; Kantsagarri da, zapataria. (*Ahots ozenez.*) Kantsagarri!

KANTSAGARRI

Zer..., zer..., zer...

MUTILA

Begira: gizon honek behar-behar zaitu.

KANTSAGARRI

Nork? Nork?

GAZTEA (*Aurpegia erakutsiz.*)

Begiraidazu.

KANTSAGARRI

Currito!

GAZTEA

Bai, Currito Puertokoa.

KANTSAGARRI (*Esku-zartadatxo bat sabelaldean ematen diola.*)

Txo! Loditu egin zara!

MUTILA

Egia al da bihar Andre Rositari ezkontzarako zapatak janztera zoazela?

KANTSAGARRI

Bai..., bai..., bai...

MUTILA

Ba, honek joan behar du zure ordez.

KANTSAGARRI

Ez, ez; ez dut nahaspilarik nahi.

CURRITO

Ez dakizu ondo zelan ordainduko nizukeen! Tira, zeure seme-alabengatik, joaten utz diezadazun erregutzen dizut.

MUTILA

Polito ordainduko dizu, gainera. Badauka dirua.

CURRITO

Gogora ezazu, Kantsagarri... (*Negar-plantak eginez.*)
gure aitak zenbat maite zintuen.

KANTSAGARRI

Zaude isilik! Zer egingo diogu, ba. Utziko dizut joaten! Ni etxean geratuko naiz... Egia da, bai horixe... (*Moko-zapi haundi saskel bat ateraz.*) Izan ere, zure aitak ikaragarri maite ninduen, itzel.

CURRITO (*Hura besarkatuz.*)

Eskerrik asko, mila esker!

KANTSAGARRI

Berriz ere laranjak saltzen ibiliko zara? A, zelako aldarri polita egiten zenuen! «Naranjitas, naranjaaaaas...»
(*Badoaz.*)

(*Ilargia eskenaz jabetuz doa eta gitarra-soinua airez aire dabil.*)

KOKOLITXE (*Ametsetan.*)

Kristobitak jo egingo zaitu, maitea! Kristobitak zilbor berdea eta konkor berdea ditu. Gauez zurrunga-hotsez ez dizu lo egiten utziko. Nik, berriz, musutan emango nizuke, musutan! Hura tristura lazoa ilean ikusi zintudanean...

(*Vito-aren doinua eskenaz jabetzen da. Ezkerraldetik, KOKOLITXEK amesten duenaren antzezpena irteten da. ANDRE ROSITA da, urdin ilunez jantzita, lore koroa bat buru ganean eta zilarrezko puñala eskuan.*)

ANDRE ROSITAREN MAMUA (*Abestuz.*)

Con el vito, vito, vito,
con el vito, vito, claro...
Cada hora, niño mío,
de ti me voy alejando.

(Palmondo horia zilar argitxoz bete-bete egiten da, gauza orok tinte urdinxka txit teatrala hartzen duela.)

KOKOLITXE

Arantzazuko Ama! *(Jaikitzen da, baina une horretan dena desagertu egiten da.)* Esnatu naiz. Bai, esnatu naiz zalantzarik gabe. Bera zen, lutuz jantzita. Begien aurrean dudala iruditzen zait..., eta doinu hori...

(Orain, balkoian, lokartu ezinik kantari dabilen Rositaren benetako ahotsa entzuten da.)

ROSITA

Con el vito, vito, vito,
con el vito, que me muero...
Cada hora, niño mío,
estoy más metida en fuego.

KOKOLITXE

Hau da barrutik negar egiten dudan lehen aldia! Zinez diot. Lehen aldia!

Oihala

BOSGARREN KOADROA

Eskenan etxe zuridun kale andaluz bat ageri da. Lehenengo etxean zapatariarena dago; bigarrenean, ispilua eta besaulkia kanpoan dituela, bizartegia. Urrunago, atari handi bat honako txartela duena: «MUNDUAN DIREN ZAPUZTU GUZTIEN OSTATUA» Atearen gainean, zazpi ezpatak zeharkaturiko bihotz handi-handi bat. Goiza da. Zapatariarenean, KANTSAGARRI dago, bere aulkian jezarrita, zaldun bota bat josten; saloitxoaren ondoan, zain, FIGARO dago, berdez jantzita; buruan saretxo beltza du eta belarrondoetan ile-gingil bana; labana zorrozten dihardu leungailu luze-luze baten bitartez.

FIGARO

Gaur bisita handia espero dut.

KANTSAGARRI

Zein bi-? Zein bi-?

(Barrutik, xirula batek amaitzen du esaldia.)

FIGARO

Jaun Kristobita etorriko da; Jaun Kristobita, makiladuna.

KANTSAGARRI

Ondo irudi-? Ondo irudi-?
(*Xirulak amaitzen du esaldia.*)

FIGARO

Bai, bai! Jakina! (*Barre egiten du.*)

ZITAL BAT

Zapatari, kakalarri
eutsi gogor eztenari,
ezetz sartu zuloari!

FIGARO

E? Barraban hori! Barraban zital hori! (*Badoakio haren atzetik korrika.*)

(*Bestaldetik CURRITO Puertokoa sartu da. Aurpegia estalita dator, ohi bezala; eskenaren erdira iristean, kontrako aldetik tarrapataka datorren FIGAROREKIN topo egiten du.*)

CURRITO

Labana sartzen badidazu, nik begiak aterako dizkizut!

FIGARO

Barkatu, "mesie"! Bizarra kendu behar duzu? Nire bizartegia... (*FIGAROK bere talentua goresteko imintzioak egiten ditu.*)

CURRITO

Zoaz pikutara!

FIGARO (*CURROren aldarria imitatuz.*)

Naranjitas, naranjaaaaaas! (*Txistu egiten du.*)

CURRITO (*Zapatariarenera heltzen da.*)

Kantsagarri, emazkidazu botatxoak eta kajoitxoak.

KANTSAGARRI

Baina..., baina..., baina... (*Dardaraz.*)

CURRITO (*Haserre bizian.*)

Emateko esan dizut!

KANTSAGARRI

Eutsi..., eutsi...

FIGARO (*Saltoka.*)

Tira eta bira
ditarea galdu
tira eta bira
azkenean azaldu

CURRITO (*Arrosa koloreko botatxo batzuk laztanduz.*)

Ai Rositaren
botatxoak,
zeinek laztanduko
haren hankatxoak!

KANTSAGARRI

Utzi ni bakean! Utzi bakean! (*Eztena sartzeari ekiten dio.*)

CURRITO (*Bere botekin pozak zorutzen.*)

Ardo baso biren parekoak dira, hasperen bi bezalakoak...

FIGARO

Zerbait gertatzen da. Zalantzarik gabe, zerbait gertatzen da! Berritasunak aidean dabilta herrian. Ai, berria, berria! Iritsiko da nire bizartegira, bai horixe.

CURRITO (*Botak eskuan doalarik.*)

Nola ote liteke zu nirea ez izatea, Rosita? (*Muin egiten die botei.*) Arratsaldeko ilargiaren bi negar-malko bezalakoak dira, iratxoen herrialdeko bi dorretxo bezalakoak, bi... (*Muin ozena.*), bi... (*Irten egiten da.*)

FIGARO

Jakingo dut, ba, zer gertatzen den. Berriak, mundura heldu eta zabaldu orduko, bizartegitik pasatzen dira. Bizartegiak berrien geltoki dira. Labana honek sekretuen oskola hausten du. Bizarginok txakur usnariak lakoxeak gaituzu; berba ilun eta zeinu misteriotsuen sunda soma dezakegu. Jakina! Buruetako alkate gara, ba, eta ilebasoen artean bidezidorrak zabalduz, zabalduz... buru horien barruan zer pentsatzen den jakiten dugu. A, zelako istorioak konta nitzakeen, bizartegiko loti itsusienak!

KRISTOBITA (*Sartuz.*)

Bizarra kentzea nahi dut oraintxe berton, bai jauna,
oraintxe berton, ezkontzera noa eta. Brrrr! Inortxo ere ez
dut gonbidatuko, gainera, denok lapur hutsak zarete eta.

(KANTSAGARRIk bere atea itxi eta leihatilatik burua atzeratzen du.)
FIGARO

Dira.

KRISTOBITA *(Makila luzatuz.)*

Zarete.

FIGARO

Dira... hamarrak dira. *(Erlojua gordetzen du.)*

KRISTOBITA

Hamarrak izan nahiz hamaikak izan, oraintxe berton
kendu gura dut bizarra.

KANTSAGARRI

Zitala da gero!

KRISTOBITA *(Bere makilaz KANTSAGARRI buruan joz.)*

Tori eta tori!

(KANTSAGARRIk burua babesten du, arratoiak bezala garrasika.)
KRISTOBITA

Ekin! *(Jezartzen da.)*

FIGARO

Hori buru ederra daukazuna! Bikaina da, gero! Ereduzkoa.

KRISTOBITA

Hasi!

FIGARO *(Lanean diharduela.)*

La, lara, la. lara...!

KRISTOBITA

Ebakirik egiten badidazu, egin, kanalean irekiko zaitut,
goitik behera! Goitik behera esan dut, eta goitik behera
izango da!

FIGARO

Zoragarria, Jaun Txit Goren hori! Pozak zorutzen nago.
La, lara, la, lara!

*(Ostatuko atea irekitzen da. Horiz jantziriko NESKATO bat ageri da,
ilean arrosa gorria duela. Esku-soinua dakarren AGURE ESKALE bat
ostatuko jezarleku batean esertzen da.)*

(...)

FIGARO *(Neskatoari begira.)*

Kantsagarri, irten zaitez laster!

*(Neskatoa, zurturik, lo seko datzan KRISTOBITARI begira gelditzen
da.)*

KRISTOBITA *(Zurrungaz.)*

Brrrrrr, brrrrr...

KANTSAGARRI *(Beldurrez.)*

Ez, ez dut irten nahi. *(Burua leihotik ateratzen du.)*

FIGARO

Hau mirestekoa da! Banekien, ba, nik. Baina, bai ona
kontua! Jaun Kristobitak burua egurrezkoa du. Makal-
zurez egina! Ha, ha, ha! *(Neskatoa gehiago hurbiltzen
da.)* Begira ezazue, begira zenbat pintura...! Zenbat
pinturaa! Ha, ha, ha!

KANTSAGARRI *(Irtenaz.)*

Esnatuko da.

FIGARO

Bekokian lakatz bi ditu. Bertatik erretxina isuriko du,
izerdi gisa. Hori zen berria! Berri ikaragarria!

KRISTOBITA *(Mugituz.)*

Azkar..., brrrrr..., azkar...

FIGARO

Jauna! Bai, bai.....

Oihala

SEIGARREN KOADROA

HAndre Rositaren etxea. Aurrealdeko balkoietan, armairu handi bi daude, goiko aldean sareta argiak dituztenak. Sabaian kriseilu bat. Hormek azukre-arrosa argi-argiaren tonua dute. Atearen gainean, Limako Santa Rosaren erretratua, limoi-uztai baten azpian. ANDRE ROSITA arrosaz jantzirik dago. Ezkongai-jantzi ikusgarria du, izurrez eta xingola bihurritz betea. Paparraren gainean, azabatxezko lepoko bat.

ROSITA

Dena galdu da! Den-dena! Tormentura noa, Marianita Pineda joan zen modu-moduan. Hark burdinazko lepokoa eduki zuen Heriok eraman zuenean; nik, berriz, beste lepoko bat... Jaun Kristobitaren lepokoa (*Negarrez hasten da.*)

(Ahots bat entzuten da kanpoan.)

AHOTSA

Rosita, nik ikustearren
ure oinaren punta
dozer egingo nuke,
z baita gauza arrunta.

ROSITA

Ai, ene ama Santa Rosa! Zein ahots ote da hori?

CURRITO (*Aurpegia estalirik, atean bat-batean agertzen da.*)

Sar daiteke?

ROSITA (*Izukurik.*)

Nor zaitut?

CURRITO

Gizonezko bat.

ROSITA

Baina, baduzu aurpegia?

CURRITO

Begitxo horiek ondo ezagutuko luketena.

ROSITA

Ahots hori...

CURRITO (*Bere kapa irekiz.*)

Begira iezadazu!

ROSITA (*Ikaraturik.*)

Currito!

CURRITO

Bai. Currito. Mundurik mundu joana, zurekin ezkontzeko itzuli dena.

ROSITA

Ez, ez! Zoaz hemendik, Jaungoikoarren! Neure hitza emanda nago. Gainera, ez zaitut maite; lehenago utzi egin ninduzun. Orain Kristobita maite dut. Zoaz, zoaz hemendik!

CURRITO

Ez naiz joango! Zertarako etorri naiz, ba?

ROSITA

A, zorigaiztokoa naiz! Badut erlojutxo bat, badut zilarrezko ispilutxoa, baina... zein zorigaiztokoa naizen!

CURRITO

Zatoz nirekin. Zu ikusi eta zeloek jan egiten naute.

ROSITA

Ni galtzea nahi duzu, zital horrek?

CURRITO (*Besarkatzeko asmoz hurbiltzen zaiola.*)

Rosita nirea!

ROSITA

Jendea dator! Alde hemendik, lapurra! Tempranillo!

AITA (*Sartuz.*)

Zer gertatzen da?

CURRITO

Andre Rositari bere ezkontzarako zapatak probatzera etorri naiz, Kantsagarrik ez dauka etortzerik eta. Zoragarriak dira. Gorteko printzesentzat eginak dirudite.

AITA

Proba iezaizkiozu!

(*ANDRE ROSITA aulki batean eseri da. CURRITO haren oinen aurrean beluniko jartzen da, eta AITAK egunkari bat irakurtzen du.*)

CURRITO

Oi, hankatxoaren ederra!

ROSITA (*Ahots apalean.*)

A, zitala!

CURRITO (*Ozenki.*)

Igon ezazu apurtxo bat gona.

ROSITA

Badago. (*CURRITOK bota bat janzten dio.*)

CURRITO

Ea, beste apurtxo bat...?

ROSITA

Asko da, zapataritxoa.

CURRITO

Beste apurtxo bat!

AITA (*Bere aulkitik.*)

Izan zaitetz esan onekoa, haurra; beste apurtxo bat.

ROSITA

Ai!

CURRITO

Beste apurtxo bat! (*ANDRE ROSITAREN hanka begiesten gelditzen da.*) Pixka bat gehiago!

AITA

Banoa. Botak poxpolin-poxpolinak dira. Bide batez ate hori itxiko dut. Hozkirri dago hemen. (*Handik irtenda, erdiko atera iristen da.*) Lanak izan ditut ixten. Herdoilduta zegoen.

CURRITO

Zure oinaren ederrak
txunditu ditu bazterrak!

ROSITA (*Jaikiz.*)

Gizatxarra, judu txakur hori...!

CURRITO

Arrosa. Maiatzeko arrosatxo hori!

ROSITA (*Txilio mehe-meheak eginez.*)

Ai, ai, ai! (*Korrikari ekiten dio eskenatokian zehar.*)
Badator Jaun Kristobita! Irten zaitetz bizkor hemendik!
(*Atea itxirik topatzen dute.*) Baina, zelan itxi du aitak ate hau?

CURRITO (*Dardaraz.*)

Egia esan...

ROSITA

Somatzen ditut haren urratsak eskilaratxotik datorrela.
Argi egin iezadazu, Santa Rosa! (*Bitartean, CURRITO atea zabaltzen saiatzen da.*) A! Zatoz hona! (*Eskuin bazterreko armairua ireki eta bertan ezkututzen du.*) Kito! Nireak egin behar zuela uste nuen!

KRISTOBITA (*Kanpoan.*)

Brrrrr!

ROSITA (*Erdi negarrez.*)

Ai, ai, noiz ikusiko ote dut ene maitea! (*Eztarria korapilatu egiten zaio.*)

KRISTOBITA (*Atean.*)

Gizon usaina somatzen dut
Non den esan, bestela jango zaitut!

ROSITA

Baina, baina, Kristobita, esatea ere!

KRISTOBITA

Ez duzu inorekin hitz egin behar! Inorekin ere ez! Esan dizut! (*Mmmm, zein gustagarria den! Horiek perniltxoak, horiek!*)

ROSITA

Nik, Kristobita...

KRISTOBITA

Berehala ezkonduko gara... Aizu! Inoiz ikusi al nauzu baten bat makilaz hiltzen? Ez? Ba, ikusi behar nauzu. Honela egiten dut: dinbi-danba, dinbi-danba... eta gero trokartera.

ROSITA

Bai; polita da.

AKOLITOA (*Leihotik.*)

Abade jaunaren partez, nahi duzuenean joateko.

KRISTOBITA

Bagoaz! Ole, ole, bagoaz! *(Botila bat hartuta dantza egiten du, edaten duen bitartean.)*

ROSITA

Beraz... errezela jantziko dut.

KRISTOBITA

Neu ere banoa... kapela handi-handia janztera eta makilari xingola batzuk ipintzera... Oraintxe nator. *(Badoa, dantzatuz.)*

CURRITO *(Armairuko saretatik azalduz.)*

Irekidazu.

(ROSITA armairurantz abiatzen da; orduan KOKOLITXE, salto handi bat eginez, leihotik sartzen da.)

ROSITA

Ai, ene! *(Berarengana doa eta haren besoetan jausten da.)* Zu bai! Zeu maite zaitut eta ez beste inor munduan! *(KOKOLITXEK besartean hartzen du.)*

KOKOLITXE

Bihotza!

CURRITO *(Armairutik.)*

Banekien, ba! Emakume gaiztoa zara.

KOLITXE

Zer da hau?

ROSITA

Ai ene! Erotu egingo naiz!

KOKOLITXE

Zer egiten duzu satorzulo horretan? Jalgi kanpora, gizonak dauden lekura! *(Jotzen du armairua.)*

ROSITA

Erruki zakizkide!

KOKOLITXE

Errukitu zutaz, emagaldu zirtzil hori?

CURRITO

Biok ito behar zaituztetet, biok ala biok!

KOKOLITXE

Irten zaitetz berehala! Hauts itzazu ateak! Koldarra!

ROSITA

Badator Kristobita! Erruki, badatorrela Kristobita!

CURRITO

Irekiiii!

KOKOLITXE

Datorrela! Horrela ikusiko du bere andregaia beste batekin nahasita dabilela.

ROSITA

Nik azalduko dizut, maitea. Ihes egizu!

KRISTOBITA (*Kanpoan.*)

Rosita... polita!

ROSITA

Ez dago denborarik. Hemen! (*Beste armairua ireki eta bertan KOKOLITXE ezkututzen du; ondoren, errezel arrosa bat jartzen du buruaren gainean.*) Hilgo naiz! (*Kantatzeko plantak egiten ditu.*)

KRISTOBITA (*Sartuz.*)

Zer astrapala izan da hori?

ROSITA

Zera... gonbidatuak dira, atean zain daudenak.

KRISTOBITA

Ez dut gonbidaturik nahi!

ROSITA

Baina... hor daude eta!

KRISTOBITA

Ba, hor badaude, joan daitezela. Joan daitezela! (*Bere kautan.*) Jakingo dut nik astrapalarena zer izan den. (*Ozenki.*) Goazen, Rosita. E? Oi, zein gustagarria den!

(Erdiko atea irekitzen da eta ezkontzako GONBIDATUAK ageri dira; kolore desberdinetako paperezko arrosekin egindako uztai handiak dakartzate. Uztaion azpitik JAUN KRISTOBITA eta ROSITA pasatzen dira.)

1. GONBIDATUA

Gora ezkongaiak!

DENAK

Gora! (*Musika.*)

(Saretetatik CURRITO eta KOKOLITXeren burutxoak azaltzen dira.)

CURRITO

Lehertzera noa!

KOKOLITXE

Beraz, zu zara emakume horren maitalea? Egongo gara buruz buru! Bai horixe!

CURRITO

Zeuk nahi duzunean, kontakatilua!

KOKOLITXE

Armairu hau burdinazkoa ez balitz...!

CURRITO

Ha!

KOKOLITXE

Sudurra koskada batez kenduko nizuke, bai gustura kendu ere! (*Kanpoan «gora ezkongaiak!, gora!» entzuten da.*) Ezkontzera doaz... betiko ahaztuko nau! (*Negarrari emanaz.*)

CURRITO (*Deklamatuz bezala.*)

Ahazten ikastera etorri naiz herrira.

KOKOLITXE

Hark ez dit berriz esango «ene maite polita»;
nik ez diot berriz esango «maite zaitut, Rosita».

CURRITO

Betiko aldegingo dut, betiko!

KOKOLITXE

Ai, ai, ai!

CURRITO

A, eskertzarrekoa halakoa! Eskertzarrekoa,
eskertzarrekoa!

(*Kanpoan elizako kanpai-hotsa da, suziriak eta musika.*)

KOKOLITXE

Ezingo naiz gehiago bizi!

CURRITO

Ez diot egundo beste emakumeri begiratuko! (*Txotxongilo biek negar egiten dute.*)

ELTXOA (*Ezkerretatik sartuz.*)

Ez negarrik egin, laguntzook, ez da negar egin behar.
Hara: gure Lurrak bide zuriak ditu, bide lauak ditu, bide

txepelak ditu... Baina, mutilok, zer dela eta perla-jario hori? Ez zarete printzeak. Azken batean... ilbehera ez da hain ilbehera; haizea joan ez doa, eta etorri ere ez dator... *(Turutatxoa jo eta badoa.)* Ez doa, ez dator. Ez dator, ez doa... *(KOKOLITXE eta CURRITO zizpuru handi bana egin eta elkarri begira gelditzen dira.)*

(Erdiko ate nagusia irekitzen da bat-batean eta ezkontz segizioa azaltzen da. JAUN KRISTOBALek eta ANDRE ROSITAK agur egiten dute atean; gero itxi egiten dute. Musika eta urruneko kanpai-hotsa.)
KRISTOBITA

Ai, Rosita nire bihotzekoa! Ai, Rosita!

ROSITA

Orain hil egingo nau makilazoka.

KRISTOBITA

Makalik zaude? Zizpuruka zaudela iruditzen zait. A, baina nirekin gustatzen zarela da, noski... Begira nolako jantzia daukadan! Eta zelako botak! Lara, lara! A! Ekar ditzatela gozokiak eta ardoa! Ardo ugari! *(MORROI bat sartzen da, botila batzuk dakartzala. KRISTOBITA botila bat hartu eta edaten hasten da.)* Oi, Rosita polita! Txikita, polita! Ez al naiz ezin ederragoa? Musu emango dizut! Eutsi, eutsi. *(Musu ematen dio. Une horretan KOKOLITXE eta CURRITO euren saretetara asomatzen dira eta amorruzko garrasia egiten dute.)* Zer da hori? Etxe honek ez ote dauka lotsarik? *(Makila hartzen du.)*

ROSITA

Ez, ez, Kristobal. Zedenak dira, zerak... haurrak kalean...

KRISTOBITA *(Makila jareginez.)*

Ba, hori astrapala ateratzen dutena! Hori astrapala!

ROSITA *(Ikaraz eta plantak eginez.)*

Noiz kontaktuko dizkidazu agindutako istorioak?

KRISTOBITA

Ha, ha, ha! Istorio politak dira, bai, zure aurpegi poxpolin hori bezain politak. *(Edaten du.)* Jaun Tankredoren

istorioa da, bere azpi-harriaren gainean zutik zegoen Jaun Tankredoren istorioa. Badakizu? Ñooo! Eta Juan Tenorio jaunaren istorioa, Jaun Tankredoren eta bion lehengusua zena. Bai, jauna. Nire lehengusua. Esan zeuk "nire lehengusua!"

ROSITA

Zure lehengusua!

KRISTOBITA

Rosa! Rosa! Esadazu zeozer!

ROSITA

Maite zaitut, Kristobita.

KRISTOBITA

Ole, ole! (*Musu ematen dio. Armairuetatik beste garrasi bat entzuten da.*) Hau akabua da! Akabuko akabuaren akabua! Brrrrr!

ROSITA

Ai, ene! Ez zaitetz, ba, horrela jarri!

KRISTOBITA (*Makilarekin.*)

Dena delakoa, irten dadila!

ROSITA

Aizu, ez zaitetz horrela jarri. Oraintxe puntuan txori handi bat pasatu da leiho ondotik... honenbesteko hegoekin... honenbestekoak!

KRISTOBITA (*Hura imitatuz.*)

Honenbestekoak! Honenbestekoak! Baina itsua ote naiz, ba, ni?

ROSITA

Ez nauzu maite...! (*Negarrari emanaz.*)

KRISTOBITA (*Hunkiturik.*)

Sinistuko dizut... ala ez dizut sinistuko? (*Makila jaregiten du.*)

ROSITA (*Kursi antzean.*)

Oi, zein gau argia ikusten den teilatuen gainetik! Ordu honetan, haurrak izarrak zenbatzen ibiltzen dira, eta zaharrak lo dautza.

(*KRISTOBITA jezartzen da, oinak mahai gainean jarri eta edaten hasten da.*)

KRISTOBITA

A, neu ere ardoz egina banintz... plazer izango nuke neure burua edanaz. Ñooo! Eta nire tripa pastela balitz, pastel arrosa handi bat, gereiza eta batatarekin... (*Txotxongiloak armairuetan azaltzen dira eta zizpuruka dihardute.*) Nor dabil zizpuruka?

ROSITA

Neu naiz, neu, txikitako denborak gogoratzen...

KRISTOBITA

Ni txikia nintzenean ilargiaren besteko pasteltzarra eman zidaten eta neuk bakarrik jan nuen oso-osorik. Ñooo! Neuk bakarrik.

ROSITA (*Modu erromantikoan.*)

Cordobako mendiek gerizpe ederrak dituzte euren oliboendoen azpian, gerizpe zabalak, sekula aldegiten ez duten gerizpe hilak. Ai, beraien sustraien azpian banengo! Granadako mendiek argi zurizko oinak dituzte eta elurrezko orrazkera. Ai, beraien iturburuen azpian banengo! Sevillak ez du mendirik.

KRISTOBITA

Ez du mendirik, ez...

ROSITA

Laranja koloreko bide luzeak. Ai, beraietatik galduko banintz!

(*KRISTOBITA hari entzunez lo gelditu da, botila eskuan.*)

CURRITO (*Ahopean.*)

Ireki!

KOKOLITXE

Ez iezadazu ireki! Berton hil nahi dut.

ROSITA

Isil zaitezte, isildu Jaungoikoarren!

(ELTXOA sartzen da eta KRISTOBITAren inguruan turutatxoa jotzen hasten da. Beronek esku-zartakoak ematen dizkio.)

CURRITO

Sekula ikusiko ez nauzun lekura aldegingo dut.

ROSITA

Nik ez zaitut egundo maite izan. Gizon alderraia zara, joan-etorrikoa.

KOKOLITXE

Zer entzuten dut?

ROSITA

Zeuren bakarrik, maitea!

KOKOLITXE

Ai, ezkondata zaude, baina!

KRISTOBITA

Brrrrr! Eltxo zitalak! Eltxo petralak!

ROSITA

Santa Rosa: ez dadila esnatu! (*Armairu batera jo eta, kontu handiz, ireki egiten du.*)

(Eskena hau guztia azkar-azkar eta ahots apalez gertatuko da.)

CURRITO (*Armairutik irteten dela.*)

Agur betiko, eskertzarreko hori! Hauxe da nire pena: ez zaitudala sekula ahaztuko.

(Une horretan ELTXOAK turutakada bortitza ematen dio KRISTOBITARI buruan; hau esnatzen da.)

KRISTOBITA

A! Zer? Zer? Ezinezkoa da! Brrr!

CURRITO *(Puñala ateraz.)*

Lasai, jauna, lasai!

KRISTOBITA

A, hil egingo zaitut, hil eta txitxiki egin, hezurak txikitu!
Hau ordainduko didazu, Andre Rosita, andregaiztoa!
Zugatik ehun hogerleko pagatu eta gero hau! Brrr...!
Arrrrr! Amorruren amorruez ito egiten naiz ! Arrrr! Zer egiten zenuen hemen?

CURRITO *(Dardaraz.)*

Zera... gogoak ematen didana.

KRISTOBITA

Arrrrr! Hortaz, gogoak ematen dizuna? Arrr! Tori! Tori!
Tori gogoa! *(CURRITOK bere puñalaz KRISTOBITARI erasotzen dio; baina puñala modu bitxi batez gelditzen da KRISTOBITAREN paparrean sartuta. Bitartean, ROSITAK, saiatu ondoren, lortu du azkenean ate nagusia irekitzea; horrela, CURRITOK ihesari ematen dio. KRISTOBITA haren jarraian dabil, esaten diola:)* Tori gogoa! Tori gogoa!

(ROSITAK txilio garratz-garratzak egiten ditu, barre-algara histerikoekin batera. Denboralditxo honetan guztian orkestratxo bateko txilibitu-hotsak lagun diezaiela pertsonaiei.)

KOKOLITXE

Irekidazu, neuk hilgo dut honantz datorrenean!

ROSITA

Irekiko dizut? *(Irekitzera doa.)* Ez dizut irekiko! Ai, ene!

KOKOLITXE

Rosita: utzidazu gizon horri sama bihurritzen.

ROSITA

Irekiko dizut? (*Irekitzera doa.*) Ez dizut irekiko! Orain badator, eta hilgo gaitu.

KOKOLITXE

Hil gaitezen elkarrekin!

ROSITA

Irekiko dizut? Bai, bai! Irekiko dizut. (*Irekitzen dio.*) Nire bihotza! Nire lorategiko arbolatxo hori!

KOKOLITXE (*Hura besarkatuz.*)

Krabelin kultibatua! Kanela zotza! (*Operako duo-etako moduko idilioa hasten da.*)

ROSITA

Zoaz zeure etxera; ni hiltzera noa laster.

KOKOLITXE

Ezina da, loretan loreena zaren hori. Rosita: hango izarrean zibu bat eta zilarrezko balkoia egingo dizkizut. Bertatik ikusiko dugu ilargiz jantzitako munduaren ikara.

ROSITA (*Dena ahaztuta, zorion betean.*)

Zein erromantikoa zaren, ene laztana! Lore bat naizela begitantzen zait, zure eskuen artean petaloak galtzen ditudan lorea.

KOKOLITXE

Egunean baino egunean arrosago ikusten zaitut; badirudi egunero errezel bat erazten duzula, biluzik agertuz.

ROSITA (*Bere buru txikia lagunaren paparrean ipiniz.*)

Zure bularretik milaka txori hegaldatu da; maitea, zuri begiratzean iturritxo baten aurrean nagoela iruditzen zait. (*Kanpoan, KRISTOBITAREN ahotsa entzuten da; ROSITA irteten da bere estasitik.*) Ihes egizu!

KRISTOBITA (*Atean azaltzen da, erabat txunditurik geldituz.*)

Arrrr! Zenbat maitale ote duzu, ba? Bi, hiru, dozenaka? Prestatu trokarako! Brrrr! Brrrr! (*KOKOLITXEK eta ROSITAK elkarri musu ematen diote, KRISTOBITAREN aurrean.*) Ezinezkoa da! Nik hil ditut hirurehun ingeles, eta hirurehun konstantinoplar ere bai! Gogoratuko zarete nirekin! Ai, ai! (*Makila jausi egiten zaio eskuetatik; malguki-hots astrapalatsua entzuten da.*) Ai, nire tripa! Zuen erruz apurtu naiz, hil naiz! Ai, hil behar dut! Deitu abadeari!

ROSITA (*Garrasi ezin agudoagoak jaurtiz, korrika dabil eskenatokitik, bere buztan luzea narras doala.*)

Aitaaa! Aitaaa!

KRISTOBITA

Arrr! Danba! Amaitu dut! Nireak egin du! (*Zilborrez gora gelditzen da, eskuak gora; ondoren, eskenatokitik kanpora jausten da.*)

ROSITA

Hil da! Ene Jaungoikoa, hau estualdia!

KOKOLITXE (*Beldurrez hurbiltzen dela.*)

Hara: ez du odolik!

ROSITA

Ez duela odolik?

KOKOLITXE

Begira! Begira zer irteten zaion zilborretik!

ROSITA

Hau beldurra!

KOKOLITXE

Badakizu gauzatxo bat?

ROSITA

Zer?

KOKOLITXE (*Pozarren.*)

Kristobita ez zen pertsona!

ROSITA

Zer...? Entzun ere ez dizut egin nahi! Hau itolarria! Beraz, ez zen pertsona?

AITA (*Sartuz.*)

Zer da? Zer gertatzen da?

(*TXOTXONGILO batzuk sartzen dira.*)

KOKOLITXE

Begira!

AITA

Leher egin du!

(*Ate nagusia zabaltzen da eta TXOTXONGILOAK ageri dira, zuziak eskuetan; kapa gorriz eta kapela beltzez jantzita datoz. Aurretik ELTXOA dator, banderatxo zuri batekin eta turuta joaz. Hilkutxa eskerga dakarte, piperren eta arbien irudiak marrazturik dituena. ABADEAK kantari datoz. Txilibituek hileta-segizioari laguntzen diote.)
(*Ondoko elkarrizketa kantatua da, «Din-dan, nor hil da, Peru Zapataria» kantaren doinuz abes daitekeena.*)*

DENAK

Din-dan, nor hil da?

ABADE BAT

Kristobita lodia.

DENAK

Zer egin dau?

ABADE BAT

Pekatu. Ehundaka gizon kolpatu, makilarekin egurtu, trokartera bialdu.

DENAK

Hori baino ez badau egin
eharko jako parkatu.

(KRISTOBITA jasotzen dutenean, honek fagot baten antzeko soinua ateratzen du, barregarria. Denak aldentzen dira; ANDRE ROSITA negarrez dago. KRISTOBITAREN hotsa gero eta motelagoa da, bukaeran xirularen antzeko zizpuruak bihurtuz; orduan, hilkutxara botatzen dute. Segizioak itzulia ematen dio eskenari, musikazko zizpuruaren artean.)

KOKOLITXE

Bularra txintxilinez beteta somatzen dut orain, bihotz txikiz beterik. Halako lore-soro zabala ematen dut.

ROSITA

Zeuretzat izango dira nire negar-malkoak eta nire musuak. Zeuretzat, krabelin hori.

ELTXOA *(Segizioarekin irtenaz.)*

Babalasto handiari

lur ematera goaz.

Kristobita mozkortia

ez da itzuliko erraz.

Ran, rataplan, rataplan, rataplan!

Rataplan!

*(KOKOLITXE eta ROSITA besarkaturik gelditzen dira. Sinfonia).
Oihala*

AMAIERA